

ALKATE DEKRETUA

2024ko azaroaren 25ean MIKEL BELAR IMAZ jaunak, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA elkartearen izenean 2024-3361 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarrako Udalean. Ondoren, bigarren eskaera bat sartu zuen 2025eko martxoaren 14an (2025-931).

Aipatutako eskaera bidez, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA taldeak 2025. urtean dirulaguntza eskatu dio Ibarrako Udalari.

Ibarrako Udala bat dator EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAren lanarekin eta helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarrako Udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA delako euskararen garapen osoa izateko xedea batuta hainbat lan-eremutan diharduten askotariko elkarteek osatzen duten eta euskalgintzak inoiz izan duen bilgunerik handiena, anitzena eta garrantzitsuena eta ez dagoelako bera bezalakorik Euskal Herri osoan.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.07 2025 dirupartida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Diruz laguntzea EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA, euskararen garapen osoa izateko xedea batuta hainbat lan-eremutan diharduten askotariko elkarteek osatzen dutelako eta euskalgintzak inoiz izan duen bilgunerik handiena, anitzena eta garrantzitsuena delako eta ez dagoelako bera bezalakorik Euskal Herri osoan.

BIGARRENA. Aipatu dirulaguntza 800 eurokoa izango da eta EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAri (G20620217) ordainduko zaio ES83 3035 0092 58 0920034446 kontu korrontean.

HIRUGARRENA. Aipatu kopurua 2025eko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.07 2025 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da.

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAK honakoa aurkeztu beharko dute 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen:

- a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen osoko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Nekane Lazkano Prieto

Alkateordea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025WDIZ0001-Dekretua_OR/Decreto_GE (EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KOI
-------------------	--

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NEKANE LAZKANO PRIETO - 72467813B
Data / Fecha: 2025/08/29 09:03:25